



ZESTOAKO UDALA

## **AKTA**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 27an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako udaletxean, bi mila eta hogeiko urriaren hamahiruan, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

### **1.- INSTANTZIAK.**

**1.1) E.S.L.k,** Arroa Beheko Artzubia aldeko ibardiaren berreskurapen eta hobetzearen proiektu bategina baimentzeko, Ingurumen-ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren tramitazioa beharrezkoa ez izatea proposatzen du. Betelanaren baimena emango da.

**1.2) J.A.G.k,** Aizarnako 006-026 partzela ardiekin erabiltzeko baimena eskatzen du.

Lur sail hori udal landaketa planaren barruan dago, eta plan horren balorazio bat egin ostean erabakiko da lur sail bakoitzean garatu beharreko ekintzak zein izango diren.

**1.3) Elordibidea.** Berarekin bilera bat egingo da.

**1.4) L.I.E.B.k,** elkartean dituzten itukinen inguruan, Udalaren esku-hartzea eskatzen dute.

Eraikina ondo inpermeabilizatuta egotea jabegoaren ardura da.

**1.5) F.N.G.k,** Toribio Altzaga kalea 10 eraikineko fatxada margotzeko udal baimena eskatzen du.

Eraikineko fatxada margotzeko, jabego elkartearen baimena aurkeztu beharko da Udalean.

**1.6) J.A.Gk, A.K.E.aren izenean,** elkarteko ludoteka garbitu edo berritzeko eskatzen dute.

Udal brigadaren lan plangintzan sartuko da.

**1.7) S.H.K.B.k,** Idiazpi auzunea 6 4C etxebizitzako leihoak aldatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

**1.8) A.A.I.k,** Kaleokerra 13ko sukaldeko frentean konponketak egiteko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

**1.9) P.G.A.k,** Gesalaga kalea 18 1D etxebizitzako sukaldeko tuboak, lurreko plaketak eta azulejoak aldatzeko obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

**1.10) M.E.k, G.E.ren izenean,** bere jabetzakoa den finka segregatzeko baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

**1.11) M.E.k, G.E.ren izenean,** Covid-19 gelen gehikuntzak egiteko egoitzaren anpliazioa egiteko kontsulta urbanistikoa egiten du.

Gaur egungo arauen arabera ezinezkoa da, idazten ari diren arau berrietan aztertuko da aukera hori.

**1.12) M.E.k, G.E.ren izenean,** toldo eraikin mugikor bat jartzeko baimena eskatzen dut.

Toldoaren instalakuntza behin-behinean baimentzen da.

**1.13) Zesareo Diaz plazatxoaren konponketaren ordainketa.**

Plazatxoaren konponketaren zati bat, espazio publikoa osatzen duen gainazala, udalak ordainduko dio jabekideel.

**1.14) B.A.k,** Arroabeko Lourdes-enea tabernaren kanpoaldean aluminiozko terraza itxia jartzeko aukeraren inguruko hirigintza kontsulta egiten du.

Udalak, herri osorako azterketa orokor bat egin ostean, erabakiko du terraza itxia instalatu daitekeen.

**1.15) Banda ultrazkarrari buruzko zona zurian dauden baserriei zuntz optikoa ezartzeko proposamena.**

Ontzat ematen da proposamena.

**1.16) Arroagoian gurpildun eserlekuarentzako pasabidea**

Gaia Udal Brigadarekin aztertuko da.

## **2.- PERTSONALEKO GAIAK.**

**2.1) A.A.k, Zestoako Udaleko ELAko atal sindikalaren izenean,** UDALHITZEN ezkontide edo izatezko bikoteei egiten zaien erreferentzia oro, bizikidetzaren unitate diren bikoteei ere aplikatzea eskatzen du.

Ez da egokia ikusten, proposamena bizikidetzaren unitate diren bikoteak kasuistika oso zabala suposatzen dutelako.

**2.2) U.ek,** udal ekintza desberdinei aurre egiteko erabilgarritasunari dagokion ordainsari osagarria mantentzea, edota ala ez balitz, beste proposamen edo akordio batetara iristea eskatzen dute.

Ez da proposamena onartzen.

### **2020ko urriaren 22an Udalak eta Sindikatuek izandako bileran erabakitutakoak**

**2.3) A.A udal eraikinetako garbitzailea:** Aizarna da bere lantokia, baina hortik mugitzen bada, kilometroak ordaindu beharko zaizkio. Hau da, Zestoara etortzen bada, adibidez igogailu publikoa garbitzera, Aizarnatik Zestoarako tramua ordaindu.

**2.4) Haurreskoletako garbitzaileak:** Gaueko 23:00ak arte egiten dute lana. Udalhitzek dio gaueko 22:00etatik aurrera egindako lan orduak, "gaueko" direla eta ordu horiek prezio ezberdina dute. Beraz, 22:00-23:00 bitarteko ordu hori gaueko bezala hartzea da eskatzen dena.

**2.5) Udaltzainen "disponibilitatea":** Udalhitzek hartzen ditu hainbat kontzeptu aparteko egindako lan horientzako. Zumaia eta Azpeitiako kasuetan, nominan ordaintzen zaizkie aparte eginiko ordu horiek. Hemen ere aukera hori aztertzea eskatzen dugu.

**2.6) Langileen ordezkapenak:** Orohar ordezkapenak egiteko arazo handiak daude, Lan-poltsa asko agortuta daude eta langileen gaixotasun bajak edo oporrak askotan ez dira ordezkutzen. Udalak

hausnartu beharko du nola aurre egin honi. Momentu honetan arazo "larriena" edo udal eraikinetako garbitzaileekin legoke. Hauen ordezkapena egitea ezinbestekoa da, gaur egungo egoerak (Covid-19) areagotu egin du behar hori.

### **3.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK.**

- 2020ko urriaren 13an Gazteria, Kirol eta Jai Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urriaren 14ean Ogasun Saileko Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.

### **4.- ALKATETZA EBAZPENAK.**

- 316 zk: M.K.I. udaltzainaren kontratazioa, E.K. ordezkatzeko.
- 317 zk: Gesalaga kalea 2 2.etxebizitza eraberritzeko obretako udal baimena.
- 318 zk: Zelai-txiki baserriaren aurrean dauden lurrak kentzeko Udalaren jakinarazpenari jarritako errekurtsua.
- 319 zk: M.T.K.S. plazako zoruan erori izanaren ondorioz erreklamazioaren espedientea irekitzea.
- 320 zk: Arroabean GI-631 errepideko P.K.0+200 puntuan, oinezkoen segurtasun baldintzak hobetzeko lanen Segurtasun eta Osasun planaren onarpena.
- 321 zk: Zestoako "Gurutze" Jubilatuen Etxeko taberna-aretoaren ustiapen kontratazio M.I.E.R.Y.O. CB-ri esleitzea.
- 322 zk: Arroabeko semaforizazio lanen Segurtasun eta Osasun plana onartzea.
- 323 zk: Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailearen oposaketan oinarrietako akats baten zuzenketa.

### **5.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK.**

Ez dago elkarrerantzun ofizialik.

### **6.- ERREGU ETA GALDERAK.**

Ez dago erregu edo galderarik.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa eguerdiko 14:45ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue  
Idazkaria,

O.e